

# Egoeraren Azterketa



*Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa*

**Enplegu-sorrera moteltzen ari da**

**Soldatako 100 emakumetik 35,5  
behin-behineko baldintzetan  
ari da lanean**

**Sinatutako kontratuen  
%91,7 aldi baterakoa da**

**Industriako mozkinak markak haus-  
ten; langile-gastuak minimoetan**

**Lanean dabilen pertsona bakoitzeko  
kostua KPlaren azpitiko 5,8 puntu  
hazi da**

# Hego Euskal Herriko (\*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	12 HILABETE LEHENAGO	2003
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>					
JARDUERA TASA	%	04 II	69,7	69,2	69,8
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2001	69	69	69
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	04 II	1.146.900	1.135.300	1.140.000
SOLDATAKO BIZTANLERIA	KOPURUA	04 II	923.000	896.000	915.900
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	04 II	29,5	31,5	29,3
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	2002	13	13,2	13
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	04 II	90.600	95.600	102.000
LANGABEZI TASA	%	04 II	7,4	7,8	8,3
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	0	4 MAI	8	8
"ELGEh	%	04 MAI	6,9	7,2	6,9
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	04 II	18,3	20,5	21,4
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 MAI	16	15,1	15,4
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	04 II	9,3	10,7	11,2
"EUROPAKO BATASUNEAN	%	04 MAI	9	9	8,9
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	04 URT-EKA	481.018	438.228	948.984
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	04 URT-EKA	39.902	37.811	73.879
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>					
ONARTURIKO FITXAK	KOPURUA	03 URT-ABE	472	423	472
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-ABE	15.578	8.130	15.578
<b>LAN ISTRIPUAK</b>					
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	03 URT-ABE	67.657	51.947	67.657
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	03 URT-ABE	902	704	902
<b>ESKAINNTZA ETA ESKARIA</b>					
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn	% ALD.	04 URT-OTS	2,2	2,0	0,7
INDUSTRI JARDUERA NAFARROAn	% ALD.	03 URT-ABE	5,6	9,0	5,6
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	04 I	77,8	80,4	79,4
BPGa EAEn	% ALD.	03 IV	2,5	2,3	2,2
BEGa NAFARROAn	% ALD.	03 IV	3,1	3,1	3
BPGa ESPAINIAR ESTATUAN	% ALD.	03 IV	2,8	2,1	2,4
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	03 IV	0,9	1,2	0,7
<b>PREZIOAK</b>					
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN	%	04 APIRILA	2,3	3,1	2,6
" EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 ABENDUA	1,8	2,2	1,8
* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da. Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra, Eurostat, OCDE, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, INSL, INEM, INE.					



# Aurkibidea

**SARRERA** .....3

**SORTZEN DEN ENPLEGUA  
BEHIN-BEHINEKOA DA  
ORANDIK ERE**.....4

1. Lanean dabilen  
biztanleriaren bilakaera .....4
2. Langabezian dagoen  
biztanleriaren bilakaera .....5

**HIL HONETAKO  
PUNTAKO GAIA** .....6

1. Langile-gastuen eta  
mozkin gordinen pisua.....6
2. Enpleguaren eta  
lanean ari den  
persona bakoitzeko  
gastuaren bilakaera .....7
3. Ondorioak .....7

## EGOERAREN A Z T E R K E T A

### Sarrera

Irailiko Egoeraren Azterketa honetan, bi gai landuko ditugu: enpleguak aurtengo lehenengo seihilekoan izan duen bilakaera eta EAEko industriako enpresen egoera.

Enpleguaren bilakaeraren ezaugarri aipagarrienak enpleguaren behin-behinekotasun handiagoa, batez ere emakumei eta gazteei dagokienez, eta enplegu-sorrera txikiagoa dira.

Bestalde, industriako enpresei buruzko datuek erakusten dutenez, marjina eskerga dago soldatarekin eta lanaldiaren murriztapenarekin loturiko aldarrikapenei aurre egiteko, lehiakortasunari ondorio kaltegarrikerik eragin gabe.

#### ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

\* 2004ko maiatzaren 14an eguneraturiko informazioarekin (enpleguari buruzkoa uztailaren 27an)

Atal honetan, Hego Euskal Herriko enpleguari buruzko 2004ko bigarren hiruhilekoko informazioa aztertuko dugu, bai eta urteko lehenengo seihilekoan izandako bilakaera ere.

65 urtetik beherako biztanleriaren jarduera-tasa %69,7koa izan da, 2003ko azken hiruhilekokoaren aldean ia berdin mantendu delarik (hamarren bat jaitsi da). Gizonezkoen jarduera-tasa (%80,3) 3 hamarren jaitsi da; emakumezkoena, berriz, (%59) 2 hamarren igo da. Horren eraginez, bi sexuen jarduera-tasen arteko aldea laburtu egin da pixka bat. Hala ere, gizonezkoen jarduera-tasa emakumezkoena baino 21,3 puntu altuagoa da oraindik ere.

## 1. Lanean dabilen biztanleriaren bilakaera

Lanean dabilen biztanleria 1.146.900 lagunek osatu dute; horren arabera, 2004ko urtealdia- ren lehenengo erdian, 6.900 lanpostu sortu dira. Kopuru horrek lanpostuen sorrera moteldu egin dela erakusten du. Lanean dabilen gizonezko biztanleria (674.700 lagun) 3.700 pertsona gutxiagokoa izan da seihilekoan, emakumezkoak (472.200) 10.600 gehiago izan direlarik. Horrek ere lagundu du populazioko genero-diferentziak murrizten, lanean dabilizanetatik % 58,8, oraindik ere, gizonezkoa bada ere, emakumeei dagokien %41,2aren aldean.

Sektorez sektore begiratuta, lanean dabilizan pertsonen kopuru handiena zerbitzuen sektorean egon da: 694.100 lagun izan dira, hau da, lanpostu guztietatik %60,5. Horren ostean, industria dator, 313.800 lagunekin osokoaren %27,4 bildu duena. Gero, eraikuntza sektorea dator, 108.000 lagunekin (osokoaren %9,4), eta, azkenik, lehen sektorea, 31.100 lanpostu izan dituena, hau da, osokoaren %2,7. Zerbitzuen sektorean diharduen biztanleriak 7.800 pertsona gehiago izan ditu seihilekoan, eta eraikuntzak, 4.600 gehiago; industria sektoreak, bestalde, 3.200 lanpostu gutxiago izan ditu, eta lehen sektoreak, 2.100 gutxiago.

### LANEAN DABILEN BIZTANLERIAREN BANAKETA SEKTOREKA

	Zerbitzuak	Industria	Eraikuntza	Lehen Sektorea
Lanean dabilizan biztanleak	694.100	313.800	108.000	31.100
Osokoaren %	60,5	27,4	9,4	2,7


Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea

Soldatako biztanleria 923.000 lagunekoa izan da, hau da, 2003aren amaieran baino 7.100 pertsona gehiagokoa. Horren arabera, soldatakoa ez den biztanleria 200 lagunetan urritu da (hiruhileko batetik bestera bilakaera ezberdina izanik). Generoari erreparatuta, soldatako gizonezkoak (523.700) 3.500 gutxiago izan dira aurtengo lehenengo seihilekoaren; emakumezkoak (399.300), ordea, 10.700 gehiago izan dira, lanean dabilen biztanleriaren kasuan gertatu den antzera. Emakumeei soldatako enpleguaren %43,3 dagokie, hau da, gizonak baino 13,4 puntu beherago daude atal horretan, gizonezkoak soldatako biztanleria osoaren %56,7 dira eta.

Era horretan, lanpostua duten 100 pertsonatik 80,5 soldatakoak dira, zifra horrek seihilekoan 0,2 puntuko igoera izan ondoren. Portzentaje hori %77,6koa da gizonen kasuan, eta %84,6koa emakumeenean.

2004ko bigarren hiruhilekoan, soldatako langileen %29,5 behin-behineko baldintzetan aritu da lanean, hau da, aldi baterako kontratuarekin edo kontraturik gabe (2003aren amaieran baino %0,2 gehiago). Behin-behinekotasuna txikiagoa izan da gizonen kasuan, 100etik 24,9 ibili baitira behin-behineko baldintzetan; kopuru hori aldaketarik gabe mantendu da seihilekoan. Aitzitik, emakumeen kasuan, handiagoa izan da behin-behinekotasuna, %35,5eko tasa agertzen baitu; seihilekoan, gainera, 2 hamarren igo da tasa hori. Horrek adierazten du 2004ko lehenengo sei hilabeteetan sortu den enplegua, emakumezkoena, behin-behinekoa izan dela. Bestalde, gazteen behin-behinekotasun tasa, %74,5ekoa, izugarria izateaz gain, 4,6 puntu hazi da 6 hilabete horietan.

Gure behin-behinekotasun mailak Europakoekin konparatzean ikus dezakegunez, Hego Euskal Herriko behin-behinekotasun orokorraren tasa Europar Batasuna zabalkuntza baino lehen osatzen zuten 15 estatu kideetakoa (15-EB) baino 16,5 puntu handiagoa da (15-



EBko behin-behinekotasun tasa %13koa da). Gizonen kasuan, 15-EBko tasarekiko (%12) dugun aldea 12,9 puntukoa da, biztanleria osoaren kasuan ageri den diferentzia baino txikiagoa, alegia. Emakumeen behin-behinekotasun tasa, ordea, 21,5 puntu baxuagoa da Europan (%14) hemen baino, eta, beraz, emakumeen kolektiboak erakusten du ezberdintasunik handiena behin-behinekotasunari dagokionez. Bestalde, Europako gazteen behin-behinekotasun tasa ere (%38) gurea baino askoz txikiagoa da, 36,5 puntu gutxiagokoa, hain zuzen ere.

### BEHIN-BEHINEKOTASUN TASAK. EB (2002) ETA HEH (2004ko II. HIRUHIL.)

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Gazteak
HEH	29,5	24,9	35,5	74,5
15-EB	13	12	14	38
Aldea	16,5	12,9	21,5	36,5

Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, ELGE

Horrek sinatzen diren kontratu motekin du lotura. INEMen informazioak erakusten digunez, urteko lehenengo 6 hilabeteetan, 481.018 kontratu sinatu ziren Hego Euskal Herrian, aurreko urteko aldi berean baino 42.790 gehiago, alegia. Kontratu horietatik, 39.902 (hots, %8,3) bakarrik izan ziren mugagabeak, gainerako %91,7a aldi baterakoa izan zelarik. Urtearen lehenengo erdian sinatutako kontratuei buruzko zifra horiek erakusten dutenaren arabera, egoera okerragotu egin da, 2003ko lehenengo 6 hilabeteetan sinatutako kontratu mugagaberen portzentajea handiagoa izan baitzen (%8,6) sinatu ziren kontratuen osoko kopuruan. Azken aldian urtez urte errepikatzen ari diren datu kezkarri horiek, hala ere, naturaltasun osoz tratatzen dira, ezkututzen duten iruzurra jazarri beharrean.

## 2. Langabezian dagoen biztanleriaren bilakaera

Eustaten eta Nafarroako Estatistika Erakundearen informazioarekin segituz, 2004ko bigarren hiruhilekoan langabeak 90.600 izan direla ikus daiteke, hau da, aurreko urtealdiaren amaieran baino 11.400 gutxiago. Langabeziaren jaitsierarik handiena emakumeen kolektiboan ageri da (9.600 langabe gutxiago), aldagai horretan dagoen genero-ezberdintasuna urritzen duena; hala ere, langabezian egon direnatarik 48.400 emakumeak ziren (langabeen %53,4), gizonezkoak, berriz, 42.200 zirelarik(%46,6).

Hortaz, langabezi tasa %7,4koa izan da, hots, 2003ko azken hiruhilekoan baino 8 hamarren txikiagoa. Gizonezkoen langabezi tasa (%5,9) 2 hamarren jaitsi da aztertutako aldian, eta emakumezkoena (%9,3) 1,9 puntu. Gazteen langabezi tasa %18,3koa izan da, 3,1 puntu jaitsi ondoren.

Eustatek 2002ko urtealdiari buruzko EAEko Industriaren Kontuak argitaratu ditu arestion. Agiri horrek industriako enpresen aldagai garrantzitsuenen berri ematen du. Besteak beste, lanean dabiltzan pertsonen kopurua, industriako mozkinen maila edo langile-gastuak aztertzeke aukera ematen du, adibidez.

# Hil honetako puntako gaia

## EAEko industriaren kontuak: marjina handia dago

1

### Langile-gastuen eta mozkin gordinen pisua

Ekonomiaren hazkunde-aldi osoan, 2002a izan zen sortutako aberastasuna (BPG deritzona) gutxien hazi zen urtea (zehazki, %1,7 handitu zen EAEn, eta %2,8 Nafarroan). Urte horretan, EAEko industriak %0,3ko gehikuntza erreala izan zuen, aurreko eta ondorengo urtealdieta-koen azpitik hori ere.

EAEko industriako langile-gastuak sektore horretako enpresen ekoizpen-balioaren %17,79 izan ziren 2002an, 2001ekoan aldean (%17,21) 0,58 puntu handitu ostean.


Beste alde batetik, mozkin gordinek ekoizpenaren balioan duten pisua ere handitu zen 2002an, 2001eko %7,64tik 2002ko %7,73ra, hain zuzen ere, industriaren bilakaera ekonomiko, lehen aipatu dugun bezala, hazkunde-aldiko motelena izanagatik ere.

Dena den, azterlan honetako ondorioztapenik garrantzitsuenak eta interesgarrienak 1993an hasi zen hazkunde ekonomikoko aldi osoan zehar gertatutakoari begiratzean aurkitzen ditugu. Grafikoan ikus daitekeenez, azken hamarkadan, aldaketa harrigarria jazo da EAEko industriako enpresen kontu ekonomiko- en osaran:

Lan-kostuek murriztapen itzela izan dute enpresen ekoizpen-balioan. 1993an, osoko langile-gastuak ekoizpen-balioaren %25,3 ziren; 9 urte geroago, aldiz, %17,79 baino ez zegokien gastuoi. Hau da, lan-kostuen pisua heren bat urritu da, gutxi gorabehera.

Mozkin gordinen pisuak igoera itzela izan du, 1993an ekoizpen-balioaren %2,55 izatetik 2002an %7,73 izatera igaro dira eta.

#### LANGILE-GASTUEN ETA MOZKIN GORDINEN PISUA INDUSTRIAN. EAE. 1993-2002 (PRODUKZIO BALIOAREN %A)



Iturria: Eustat



## 2

### Enpleguaren eta lanean ari den pertsona bakoitzeko gastuaren bilakaera

Ikusi dugunez, langile-kostuei enpresen ekoizpen-balio osoan dagokien pisuak beherakada ikusgarria izan du, nahiz eta aztertutako aldian zehar (1993-2002) industrian diharduten langileen kopuruak ia 50.000 laguneko gehikuntza izan zuen EAEn: Eustatek argitaratutako Industriaren Kontuen arabera 1993an 196.700 langile zeuden industrian, eta 2002an, berriz, 246.100.

Enpleguan izandako %25eko igoera hori ez dator bat langile-kostuen bilakaerarekin, bereziki hazkunde ekonomikoko aldia izan dela eta hitzarmen kolektiboetan, batez beste, KPlaren gainteko soldata-igoerak jaso direla kontuan hartuta.


Hitzarmenetan sinatutako soldata-gehikuntzak prezioen igoerak baino handiagoak izan arren, Industriaren Kontuetan aurkezten zaizkigun datuek erakusten dutenaren arabera, industrian diharduen langile bakoitzeko lan-kostuak, berez, prezioak baino gutxiago hazi dira aztertutako aldian. Era horretan:

Lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostuak aurreko urtealdiko KPIa baino gutxiago hazi dira 1994an, 1995ean, 1996an, 1997an eta 2000n (ELAK erosteko ahalmena aztertzeko erreferentziatzat erabiltzen du aurreko urteko KPIa).

1998an, 1999an, 2001ean eta 2002an, aurreko urteko KPIa baino gehiago hazi dira lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostuak.

1993tik 2002ra bitarte, lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostuak metatutako inflazioa baino 5,8 puntu gutxiago hazi dira.

### KPI ETA PERTSONAKO KOSTOAREN URTEKO HAZKUNDEA INDUSTRIAN. EAE. 1994-2002



Iturria: Eustat.

## 3

### Ondorioak

Hona hemen EAEko Industriaren Kontuen azterketatik atera daitezkeen ondorio garrantzitsuenak:

1. Mozkinak inoizko mailarik altuenetara heldu dira.- Mozkinei ekoizpenaren balioan dagokien portzentajea neurtzean, 2000. urtean historiako mailarik gorenera heldu zirela ikus dezakegu, ekoizpen-balioaren %8,27ra, zehazki. Ondoren ere inguru horretan mantendu direnez, inoiz ezagutu ez diren mailetan daudela baieztatu daiteke.
2. Langile-gastuak historiako mailarik baxuenetan daude.- Langile-gastuak, ekoizpenaren balioaren arabera neurturik, inoizko mailarik baxuenetan ageri dira (baxuena 2000koa izan zen, %16,48an).

3. 1993 eta 2002 artean, aldaketa harrigarria gertatu da enpresen kontuen osaeran.- Langile-gastuen pisuak heren bat galdu du (enpleguan gehikuntza izan arren); mozkin gordinen pisua, aitzitik, hirukoiztu egin da.
4. Lanean dabilen pertsona bakoitzeko lan-kostuak KPIa baino 5,8 puntu gutxiago hazi dira ekonomiaren hazkunde-aldian zehar.- Aurrekaririk gabeko gertaera da hori, hazkunde ekonomikoko aldietan, normalena pertsonako lan-kostuok KPIa baino gehiago handitzea da eta. Gehikuntza txikiago horren eraginez, lanaren errentek aberastasunean duten partaidetza ere urritu da ekonomiaren hazkunde aldi honetan, hori ere orain arte ezohikoa bazen ere.
5. Lanean dabilen pertsona bakoitzeko soldata-kostuen bilakaera horren arrazoiak honako hauek dira: lanaren ezegonkortasuna alderdi guztietan areagotu izana; soldata-eskala bikoitzak; gazte eta emakumeen kontratazio berrietan egiten diren bereizkeriak, eta abar.
6. Eraitza horien aurrean, hala ere, enpresaburuek "sindikatuaren aldarrikapenak eragiten dituzten lehiakortasun-arazoak" aipatzen segitzen dute. Agidanez, mozkinetara doan zatia gero eta handiagoa eta lan-kostuetara doana gero eta murriztagoa izatea nahi dute enpresaburuek. Era berean, argi dago industriako soldatak, lehiakortasunari dagokionez, 1993an baino askoz lehiakorragoak direla.
7. Enpresetan, marjina itzela dago erosteko ahalmena handitzeko eta lanaldia laburtzeko. Aberastasuna beste modu batez banatu besterik ez dago. Lanaren errentek osoko errentan duten partaidetza handitu egin behar da, eta aukera badago hori egiteko.